



EBAZPENA, 2017ko apirilaren 25ekoa, Unibertsitate zuzendariarena, 2016-2017ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaeren Ebazpena egiten duena.

2016ko uztailaren 8ko aginduaren bidez (2016ko uztailaren 13ko EHAA), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2016-2017ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

Hainbat ebazpen-proposamen eman eta jakinarazi ondoren, beka orokorre buruzko 5. ebazpena ematen da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Deialdi horren 5. ebazpenaren berri ematea 2016-2017ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean eskaerak, beka emateko edo ez emateko ebazpenarekin batera, zerrendatzen dira. Ebazpenak zehatz kontsultatzeko, eskatzaileek beren espedienteak Eusko Jaurlaritzaren beka-aplikazioan kontsultatu beharko dituzte.

Bigarren artikulua.- Hilabete bateko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzén hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek prozedura-ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkezteko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 25a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN